

EUSKERAZ BIZI IZATEKO AUKERIE BAZTER GUZTIETAN

Arrasate

P R E S S

2000.eko
oktubrearen 16a
500. zenb.

- Arrasaten 500 langiletik gora fabrikan euskaraz trebatzen
- Elkarrizketa: Julian Alkorta, "EUSKALANeko beteranoen istorixak"
- Aste honetan Arrasateko hamaika enpresak eskuratu du "Bai Euskarari" ziurtagiria



Emun

Arrasate Pressi ZORIONAK



Chapime Tailerrak

Araba etorbidea, z/g
ARRASATE
Tel.: 943 79 45 22



CITROËN XSARA BERRIA

Picasso

Talentuak mundua ikusteko era zabalagoak daudela frogatzen digu beste behin. Tokiaren kontzeptu berria zabaltzen digu Citroën Xsara Picassok, bere osotasunean: luzea, zabala eta altua. Monobolumena, modulatu; bertan bizi ere egin daiteke. Bidaientzat eroso eta garraitu nahi denarentzako edukiera handia duena. Teknologia aurrerakoiarena irudimen zorrotzenaren esku jarri da: barne ordenagailua. Pantaila digitateko klimatizagailua. Modubox. CD, irratia, kontrolagailuak bolantean dituelarik. Gauzak gordetzeko 25 toki. ABS frenatzeko banatzaile elektronikoduna. Alboko eta aurreko airgab-ak. Lagunduriko direkzio aldakorra. HDI (Common Rail) Diesel eta Gasolina (117 CV.arte) motorrak. Citroën Xsara Picassoren inspirazioa barneratuta dator.

INSPIRAZIOA GUZTIAREN GAINETIK

EZ DAKIZU CITROËNEK ZUGATIK ZER EGIN DEZAKEEN.

Kalitateak mugarik ez



ARGI-PLASTIK

Leihoen fabrikazioa, PVC, aluminioa eta poliuretanoa
Zigorrola, 1 8. Pabilioia
Tel.: 943 77 11 30
ARRASATE

Arrasate Irratia ARKOra

(494/15) 2000.5.5

ARKOren aspaldiko eskaera bati kasu eginez, Arrasate Irratia ARKOra etorri zen. Udal irratia izaten segituko zuen, baina ARKOren gestiopean. Leku aldaketa eta makineria berria ere estreinatu ziren.

Olarte oinezkoendako

(483/12) 2000.2.11

Olarte kalea behin betiko itxi zen autoendako. Maisu Aranotik Gazteluondorainoko gunea, oinezkoek bakarrik erabiltzeko geratu zen.

Aurrekontuak

(484/17) 2000.2.18

Ia bi hilabeteko atzerapenaz onartu zuen Arrasateko Udalak 2000.ko aurrekontua; 3.897.773.282 pezetako aurrekontua. Aurreko urtean baino %18,2 gehiago. Horrez gain, Iturbide Egoitzari 222,6 milioi pezeta eta AUKEAri 159,9 milioi pezeta egokitu zitzaizen.

Hies Berri sortu zen

(490/12) 2000.3.31



Hies Ekimenaren lana ordezkatzeko asmoz, Hies Berri aurkeztu zuten. Hiesaren inguru-

ruko kontuetan eguneratzeko helburuarekin sortu zen talde berria.

Goi-tentsioko kablea

(491/18) 2000.4.7

Musakolatik Aretxabaletako Fagor Ederlaneraino 30 kwko kable bat eraikitzeko asmoa dela eta, eztabaida sortu zen herrian. Bedoña eta San

Andres auzoetako hainbat lurjabereren ustez, kable horrek sekulako kaltea eragingo lioke ingurumenari; horrela, udalarekin liskarretan hasi ziren.



aurrez aurre



Euskara aldatu egin da batasunaren ondorioz, eta poesia ere aldatu egin da formei dagokienez. Lizardiren ostean, Arestik, Bitoriano Gandiagak eta Letek poesia soziala egin zuten, eta Ez Dok Amairuren bueltan, poesia kantatua ere sortu zen... bilakaera gizarteak eskatzen zuen arabera izan da.

MIKEL MARKEZ

Kantaria

1999.4.30

■ Sua postetxeari

(467/14.or.) 1999.10.15

Urriaren 7an su eman zioten postetxeari. 8-9 lagunek mailukadez zuloak zabaldu eta gasolina bidoia jaurtiki zuten barrura. Lokalean 14 langile zeuden une horretan, zabaltzen ari zirenean. Kalteak materialak izan ziren.

■ Udal garabia prest

(470/10.or.) 1999.11.5

Azaroaren lehenean heldu zen garabia Arrasatera. Aste batzuk lehenago, udalak osoko bilkuran garabia abian jartzea erabaki zuen gaizki aparkatutako autoak Gelma ondoko aparkalekura eramateko.

■ Tranbia Arrasaten

(470/13.or.) 1999.11.5

Urriaren 29an Debagoieneko alkateak eta Eusko Jaurlaritzako Garraio sailburua, Alvaro Aman elkartu ziren Aramaion. Bertan, Amanek Debarroa zeharkatuko lukeen tranbia baten proiektuaz jardun zuen.

■ Langabezia eta pobreziaaren aurka

(472/14.or.) 1999.11.19

Giza Bazterketaren Aurrakako Taldea izeneko elkarteak eratu zen eta hilaren 16an aurkeztu zen Monterronen. Euskal Herriko Gizarte Eskubideen Gutuna onar zedin eskatzeko eratu zuten taldea hainbat sindikatuk, alderdi

politikoetako kideek eta giza mugimenduek.



■ Udalbiltzari atxikimendua

(472/14.or.) 1999.11.19

Osoko Bilkuraren deialdi berezia egin zuen udalak Udalbiltzari atxikimendua adierazteko asmoz. EAJ, EA eta EHren aldeko botoekin onartu zen Udalbiltzari atxikimendua ematea.

■ Aita Benito Menni santutu

(473/12.or.) 1999.11.26

Aita Santuak santu egin zuen Aita Benito Menni azaroaren 21ean. Arrasatetik ere jende asko joan zen Erromaraino, batez ere Aita Menni ospitaleko arduradunak.

■ J. Ortubai hil zen

(474/15.or.) 1999.12.3

Jabier Ortubai, ULGOR Kooperatibaren sortzaileetarikoa bat, hil zen.

■ Marcos Vitoria hil zen

(475/12.or.) 1999.12.10


Arrasateko alderdi sozialistaren sortzaileetarikoa izan zen Marcos Vitoria. Abenduaren 6an hil zen 93 urterekin.

■ Ekon, disko berria

(478/46.or.) 1999.12.10

Ekon musika taldeak "Etnia 2000" diskoa kaleratu zuen.

aurrez aurre



Mutilak oraindik heldugabe daude modelo lanaren arloan. Emakumeak dira nagusi. Adibide bat jartzeagatik, Miss Euskadi zuzenean eskaini zen telebistan, gizonezkoena ez.

JORGE FERNANDEZ

Mister Espainia 1999
1999.9.10

Herri-kontsulta

(489/12.or.) 2000.3.24

Hirugarren Munduko hainbat lurraldek sufritzen duten kanpo zorrari buruzko erreferenduma egin zen Arrasaten martxoaren 19an. Mugarik Gabeko Ingeniaritza, Harreman, Komite Internazionalistak, Manos Unidas, Cari-

tas, Serso San Viator eta Aretxabaretako Hiruatx taldeek antolatu zuten. 2.930 boto lortu ziren guztira. Hauetatik 2.852 hemezortzi urtetik gorako herritarrek eman zituzten eta beste 71 hamasei-hamazazpi urte arteko gazteek.

**Garibai omenduz**

(496/28.or.) 2000.5.19

Esteban Garibai Zamalloa historialari arrasatearra hil zela 400 urte bete ziren. Arrasateko Udalak Las Memorias de Esteban de Garibay y Zamalloa aurkeztu zuen. Liburua Jose Anjel Achon historialariak idatzi zuen.

Jose Angel Atxon

Historialaria

"Garibaik izan nahi zuen moduan eta ez benetan zen moduan aurkeztu zuen bere burua memoriari. Lehen pertsona idatzitako edozein dokumentuk bezala, ez digu objektibotasun ziurtasunik ematen. Hori dela eta, isiltzen duena esaten duena bezain garrantzitsua da".

Erromesaldia Arantzazura

(493/9.or.) 2000.4.19

8.000 bat gipuzkoarrek hartu zuen parte Arantzazurako erromesaldian. Jesus Mari Uriarte gotzaina, Jose Antonio Pagola bikarioa eta Gipuzkoako 224 parroketatik etortitako erromesak igo ziren Oñatitik Arantzazuraino.

**2000****■ Eskola Politeknikoak**

(482/12.or.) 2000.1.28

Eskola Politeknikoak Iturriperen atzeko aldean dauden 70 bat aparkalekuren lur zatia eskatu zion udalari, toki horretan beste eraikin bat egiteko. Udalak onartu egin zuen eskaera aste horretako Gobernu Batzordean.

■ Gose greba utzi

(483/11.or.) 2000.2.11

Josu Uribetxeberria preso politiko arrasatearrak 14 eguneko gose greba egin zuen, preso politikoei egin zuten gose greba amaigabearen kanpainaren barruan. Josu

Uribetxeberria Valdemoroko kartzelan zegoen.

■ ATBk 10 urte

(483/19.or.) 2000.2.11

Herriko telebistak 10 urte bete zituen otsailaren 13an. Urte horietan ATBtik pasatu izan diren mila aurpegi eta mila kontu gogorazari ziren.

**■ Astore-Asegarce batera**

(485/11.or.) 2000.2.25

Hurrengo lau urteetarako hitzarmena sinatu zuten bi enpresek. Horren arabera, Arrasateko etxeak jantziko ditu pilota enpresa horretako 35 pilotariak. Diseinu bereziak asmatu ziren, gainera, oihalarin erabiliz, jantziak pilotariarentzat baliagarriak izan daitezke.

■ Pilar Mondragon aske

(486/14.or.) 2000.3.3

Bost urte Frantziako Fleuryko espetxean eman eta Soto del Real kartzelatik pasa ondoren, kalean utzi zuten Pilar Mondragon mondragoeta-

rra. 1974. urteko azaroaren 17an egin zuen ihes.

**■ San Juan de Dios handitzen**

(486/14.or.) 2000.3.3

Bi zentro berri ireki zituen: Aldi Baterako Zentroa eta Eguneko Ospitale Psikogeriatrikoa. Aldi Baterako Zentroa arazo psikikoak dituzten 65 urtetik gorako pertsonei dago zuzenduta. Eguneko Ospitalea,

berri, egunean zehar zainketa berezia behar duten gaixoei zuzenduta dago, 15 pertsonarentzako lekuarekin.

■ Larrialdiak bat eginda

(487/11.or.) 2000.3.10

Eskualde Ospitalean, anbulatorioko eta ospitaleko larrialdi zerbitzuak batu egin ziren. Horren aurrean, ospitaleko enpresa batzordeak eta CCOO eta LAB sindikatuek larrialdi zerbitzua kolapsatu egingo dela salatu dute. Garai batean, anbulatorioko larrialdi zerbitzua izan zena errekupeztzea eskatzen dute, baina berriro ere anbulatorioan.




JMA 

Bidekurtzeta, 3 Apdo. 70 20500 ARRASATE-MONDRAGÓN
Tel.: 943 79 30 00 - 943 79 33 32 Fax: 943 79 72 43

JMA 

aurrez aurre



Oso hedatuta dago ondoko mitoia: emakumeak sarketaren bidez lortu behar duela orgasmoa. Hori erabat faltsua da; gehien-gehienek klitoriarren estimulazioaren bidez lortzen dute plazerra, ez sarketaren bidez. Beste mito hedatu bat: bikoteak aldi berean lortu behar duela orgasmoa. Horrek sekulako malabarismoak egitera eramaten ditu bikoteak.

LUIS ELBERDIN
Sexologia
2000.4.7

Goiena Kooperatiba aurrera

(491/14.or.) 2000.4.7



Martxoaren 31n, Goiena Komunikazio Zerbitzuak eratzte ekitaldia egin zuen. Legez eratzeko behar diren kooperatibaren estatutuak, behin-behineko Errektore Kon-

tseilua eta eratzte akta onartu ziren. Bost ordezarrik sinatu zuten akta: ARKOK eta Jardun, Laixan, Txirritola eta Axtroki euskara elkar-

UEMArekin bat

(498/12.or.) 2000.6.2

Arrasateko Udalak, atxikimendua agertu dio UEMAKo (Udal Euskaldunen Mankomunitatea) Batzar Nagusiak martxoan hartutako erabakia-ri. Honakoa onartu zuen: "euskararen erabilera denon ardura izanik, Euskal Herriko erakunde eta entitate guztiak animatzen ditugu euskararen aldeko konpromisoa adierazten. Akordio hau Euskal Herriko udal eta aldundi guztiei, euskararen aldeko herri-ekimeneko erakundeek, nahiz alderdi politikoei igortzea eta euren atxikimendua eskatzea".

Solidarioak, gose greban

(498/12.or.) 2000.6.2

Arrasateko bi solidariok gose greba mugagabeari ekin zioten maiatzaren 31n. Udaltxeko areto nagusian hasi zuten baraualdia.

Baraualdia euskal pre-soekiko elkartasuna adierazteko hasi zuten, izan ere, hauek aurreko urteko azaroan ekin zioten gose greba mugagabeari.



Nomadentzako kanpalekua

(491/18.or.) 2000.4.7

Meatzerrekan nomadentzako kanpalekua jartzea erabaki zuen Mondragoeko Udalak, herrira datozen nomadek egun batzuk pasatzeko lekua izateko. Udalaren erabaki horrek haserrea sortarazi zuen Meatzerrekako auzokide batzuen artean.

Praktiker jaio da

(497/11.or.) 2000.5.26

Mondragon Unibertsitateak Praktiker izeneko egitasmoa sortu zuen, enpresetan giza baloreak sustatzeko. Funtsezko tresna, langileen eta zuzendaritzaren arteko elkarriketa da. Guztien

konpromisoa lortu nahi da horren bidez.

Alkoholzale anonimoak, 25 urte

(495/10.or.) 2000.5.12

Arrasateko Alkoholzale anonimoak elkarteak zilarrezko ezteiak bete zituen. Urteurrenarekin batera, ordura arte abadetxean egiten zizutzen bilerak udalak emandako lokal propio batean hasi ziren egiten, Arrasate Pasealekuan.

Udal autobusa

(495/12.or.) 2000.5.12

Udalak hiri-autobusa jartzea onartu zuen eta maiatzeko osoko bilkuran aukeratu zen autobusen

ardura hartuko zuen enpresa. 28 milioiko aurrekontua zuen proiektuak eta bi hiri-autobus aurreikusten ziren.

Kenci-Arrasate bigarren mailara

(495/28.or.) 2000.5.12

Lander Errastik entrenatzen zuen taldeak, EAEko bigarren mailara igotzea lortu zuen 99-2000 denboraldian. Aurreko urtean ere iguera lortzekotan egon ziren, baina iguera-aldiko partidetan emaitzak ez ziren behar bezalakoak izan.

Boolderra Uarkapen

(498/24.or.) 2000.6.2

Eskalatzaileek entrenatzeko boolderra, eta ez rokodomoa inauguratu zuten. Leku horretan sabaia nahiko baxua zela eta, erabaki zuten horrelako itxura ematea. Mila presa jarri zizkioten Raul Jimenezek, Josean Mulasek eta Mikel Castillok.



Gipuzkoako txapelkunak

(499/22.or.) 2000.6.9

Ekainaren 3an Elgoibarren jokaturako finalaren ondoren, bigarren gazte mailako Mondrako futbol taldeak Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen. Josu Zubia zen orduan taldeko entrenatzailea.



Arrasate Presseko *publizista* ohiak



Amaia Garro
(1988.12.2tik 1989.9.15era)
Fagorren dihardu lanean.




Ruth Otadui
(1989.9.15tik 1989.11.3ra)
San Viator Ikastolako adminis-
trazioan egiten du lan.



Josune Biteri
(1989.11.3tik 1991.7.5era)
BBKn egiten du lan, Madrilén.



Amaia Sanz
(1991.7.5etik 1992.4.23ra)
Lagun Aro aseguru etxeko admi-
nistrari moduan ari da.



Kepa Oñden
(1992.2.28tik 1993.7.2ra)
El Diario Vascon dihardu Arra-
satoko berriemaile moduan.



Amaia Gabilondo
(1993.7.2tik 1994.7.8ra)
Emun euskara sustapen koope-
ratiban dabil lanean.



Jasone Mendizabal
(1994.7.8tik 1996.6.14ra)
AED euskara elkarteko idazkari
ohia da.



Ikerne Altube
(1994.7.8tik 1995.1.27ra)
LKSn egiten du lan.



Iñaki Etxeberria
(1994an)
Eroskiko zentrolean egiten du lan,
Elorrión.



Maite Agirrebeitia
(1994an)
Fagorren dihardu komertzial
lanetan.



Alberto Garro
(1995.7.8tik 1997.5.16ra)
Lirain estetika zentrua zuzentzen
du.



Kaittín Allende
(1996.6.14tik 1999.3.5ra)
Aurtengo *Araba Euskarazeko*
koordinatzailea izan da.


Arrasate Presseko kazetari ohiak



Bego Zubia
1988.12.2tik 1990.9.7ra
Eginen ibili zen eta *Garan* dabil
1991tik, Nazioarte sailean, kaze-
tari moduan.



Juan Luis Azkarate
1988.12.2tik 1989.9.13ra
El Correo egunkariko berrie-
mailea da.



Jon Andueza
1989.9.13tik 1990.9.7ra
*ETB*ko "Egin Kontu" saioa aur-
kezten du.



Beñardo Kortabarria
1990.9.7tik 1993.4.23ra, eta
1995.3.31tik 1997.11.14ra
Elhuyar Kultura Elkarteko aldiz-
kariko erredakzio burua da.



Arantzasu Loidi
1990.9.7tik 1994.4.22ra
Itzultzaile lanetan dabil Arrasa-
teko *Emun* enpresan.



Edurne Mujika
1991.7.5tik 1991.9.20ra
Arrasateko Euskaltegian dihar-
du idazkari akademiko moduan.



Iñaki Galdos
1991.9.20tik 1991.10.18ra
Oñatiko Udalean EAko zinego-
tzi eta Lege Biltzarkide da.



Agurtzane Loidi
1991.10.18tik 1992.2.14ra
*Elhuyar*ren egiten du lan, lante-
gientzako euskalduntze plan-
gintzak egiten.



Rosa Mondragon
1992.2.14tik 1993.9.3ra arte
TU Lankide aldizkarian eta
GOITBn kazetari moduan dihar-
du.



Maria Agirre
1993.9.3tik 1998.3.31ra
Kazetari freelance moduan dabil.



Luis Fernandez
1993.4.23tik 1994.4.22ra
Euskaldunon Egunkarian kaze-
tari izan da, eta hainbat liburu
ere idatzi ditu.



Maider Egues
1993.9.3tik 1997.4.11ra
*ETB*ko "Sorginen Laratza" saio-
an kazetari lana egiten du.



Itxaro Zubillaga
1994.4.22tik 1998.4.24ra
K2000 produktoran egiten du
lan, *ETB*ko "Lo Que Faltaba"
saioa ekoizten.



Marian Porcel
1997.4.11tik 1998.9.25ra
Arrasate Pressen jardun ondo-
ren, *Arrasate Irratian* ibili zen
kazetari eta esatari moduan.



Patxi Montero
1997.9.29tik 1998.3.13ra
EAeko *Ekonekazaritza* Federa-
zioko idazkaria da.



Naiara Gorroño
1998.3.13tik 1998.9.11ra
*ETB*ren "Barrebusa" saioaren
ekoizle da.

*“Iaz be San Juan
San Juan zan eta
aurten be
San Juan Bautista...”*

**Ibai-arteren partetik
Zorionak Arrasate,
Zorionak Arrasate Press!**



autopista

REGALOS *SPORT AUTO*
Especial Rallye de España
 Catalunya de España
 (16 páginas centrales)
Póster



COMPARATIVA

ford focus

bere klaseko onena

ford focus-ek
 auto salduenen artean
 harrera onena lortu du.

	Batez bestekoa	Jokaera/egonkortasuna	Diseinua/estetika	Bizigarritasuna	Direkzioa	Erosotasuna	Ziurtasuna	Soinu maila
ford focus	8,29	9,49	9,41	9,29	9,05	8,88	8,68	7,83
Volkswagen Golf	8,28	8,34	9,02	7,79	8,77	8,6	8,65	7,33
Opel Astra	7,85	8,6	9	7,77	8,33	8,1	8,16	7,65
Citroën Xsara	7,61	8,17	8,56	8,22	8,23	8,15	7,96	6,58
Renault Megane	7,6	7,66	8,77	7,93	7,91	7,97	7,99	6,09
Peugeot 306	7,31	8,37	8,41	7,7	7,94	7,44	7,97	5,81
Segmentuaren media	7,55	8,02	8,52	7,86	8,07	7,73	7,96	6,43

Iturria: Autopista aldizkariak 322.000 auto gidariren artean egindako 10. Makro Inkesta. (2.124. zenb., 2000ko martxoaren 28tik apirilaren 3ra arte.)

MUGARRI

**DEBA GARAIKO
 BANATZAILE OFIZIALA**

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE
 Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54

